

# BALEIKE

184. ZENBAKIA. EURO BAT  
2010eko OTSAILA

[www.baleike.com](http://www.baleike.com)

## ARRI GRANADOS

**Txapelketa Nagusiko finala**







# OIKIAKO HERRI ESKOLA

2tik 12 urte arte  
arazoan ikasteko aukera



- Talde txikiak (banakako heziketa)
- Ingelera 4 urtetik aurrera
- Bertsolaritza Proiektua
- Teknologia berriak:  
Bloga: <http://laukostaldekotxikiak.blogspot.com>
- Psikomotrizitate gela
- Ingelera, Heziketa Fisikoa, Musika eta Heziketa Bereziko irakaslego espezializatua.
- Jangela zerbitzua



AURREMATRIKULA EPEA:  
otsailaren 1etik 12ra

Tel-faxa: 943 862 046 E-mail: [012299aa@hezkuntza.net](mailto:012299aa@hezkuntza.net)

## Etorkizunerako aukera

Izen emateko epea  
otsailaren 1etik 12ra



Zatoz gurekin!

## 0 urtekoen gela berria



## 0 Urtetik 16 urtetara

kalitatezko irakaskuntza  
euskalduna D eredua,  
zentru bakar batean.



AXULAR IBILTOKIA 6, ZUMAIA, - tel. 943 86 04 62 - e-posta: [marlatajose@vedruna.org](mailto:marlatajose@vedruna.org)  
[www.marlatajose.com](http://www.marlatajose.com)



# BALEIKE 185

AZALA a. rubio aprea



HERRI ALDIZKARIA

Foronda Kultur Etxea

Odieta, 2

tel.: 943 86 15 45

e-maila: aldizkaria@baleike.com

Argitaratzailea

Baleike Kultur Elkarte

e-maila: elkarte@baleike.com

Administrazio batzordea: Xabier Azkue, Gurenda Serrano

Erredakzio taldea: Xabier Aizpurua, Imanol Azkue,

Abelin Linazisoro, Ainara Lozano Lasa,

Aitor Manterola, Juan Luis Romatet,

Miriam Romatet, Peio Romatet, Arnaitz Rubio eta

Gorka Zabaleta

Diseinua eta maketazioa: Roberto Gutierrez

Hizkuntz zuzenketa: Imanol Azkue

Publizitatea

tel. 943 86 15 45

gurenda@baleike.com

Inprimategia

Antza Inprimategia

(Lasarte-Oria)

Tirada

800 ale

Lege gordailua: SS-405/94

ISSN: 1136-8594

Baleikek ez du bere gain hartzen aldizkarian

adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

5

baleike+

## Finalaren kronika intimoa

18

argitalpenak

ERROMES BATEN  
BARNE BIDAIA

27

erretratua

MILA MENDIZABAL ETA  
RAFAEL MANZISIDOR

24

ingurumena

BIOTOPO BABESTUAREN  
ARAUDIA EZBAIAN

Argitalpen honen edizioko laguntzaile:



kutxa

CAJA LABORAL  
EUSKADIKO KUTXA



Zumaia Udalak



EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILAK  
(HIZKUNTZA POLITIKARAKO  
SAILBURUORDETZA) diruz lagundutakoa



GIPUZKOAKO  
FORU ALDUNDIA





Arri **GRANADOS**

| Telebistako zuzendaria

# “TELEBISTA OSO MEDIO KRUDELA

Bere 45 urtetatik 20 inguru daramatza telebista munduan. Dokumentalista lanak egiteko sartu zen medioan eta ordutik ez du utzi. “Nirekin batera ikasketak egin zituen Itziar Azpeitiak deitu zidan behin. ETBrako saio bat zuzentzen zuen eta dokumentalista bat behar zuen une horretan. Nik kazetaritza eta Euskal Herriko historia ikasketak eginda nituen eta ziur aski ni izango nintzen bi gauzak konbinatzen zituen bakarra. Horrela sartu nintzen telebista munduan”. Ordutik makina bat lan egin ditu: “ETBko erredakzioan egon nintzen erreportajeak egiten eta lauzpabost urtean Txirri, Mirri eta Txiribitonen Ikusmin enpresan ibili nintzen haurrentzako programak egiten. ‘Lo que faltaba’ saioan koordinatzaile lanak egiteko pertsona bat falta zela eta niri deitu zidaten eta handik zuzendari lanak egitera pasa nintzen”. ‘Lo que faltaba’-ren abentura 2004an amaitu zen, 8 urteren ondoren. ‘Pasalo’ saioak hartu zuen haren lekukoa eta hau zuzentzen aritu da azken 6 urteetan. Aldi berean, saioa ekoiztu duen K-2000 ekoizpen etxeko edukien departamenduaren zuzendaria ere bada. Hamar urte daramatza ekoizpen etxe horretan.

**Hainbat lan egina zara telebista munduan. K-2000ko edukien zuzendaria zara une honetan. Nola egiten du lan zuena bezalako ekoizpen etxe batek?**

Bi modutara egiten dugu lan ekoizpen etxeetan, gurean barne: produktua hasieratik asmatzen dugu edo bestela sortutako baten eskubideak erosten ditugu. ‘Pasalo’ edo ‘Kalaka’, adibidez, guk sortuak dira; ondoren, haren aurrekontua egin behar da, bere balioa dirutan jarri eta telebista kate bati saltzen saiatu eta ondoren martxan jarri. Gure beste produktuetako bat, ‘Que vida mas triste’, Interneten aurkitu genuen, eta sortzaileekin harremanetan jarri ondoren, eskubideak erosi genizkien eta telebista kate bati, La Sextari, saldu genion.

**Une honetan ‘Pasalo’ saioko zuzendaria zara. Zein de zehazki telebistako zuzendari baten lana?**

Koordinatzaile baten parekoa da. Programa baten barruan hainbat departamendu daude: zuzendaritza, errealizazioa, ekoizpena eta erredakzioa. Zuzendaritzaren baitan, programaren arabera, zuzendaria eta zuzendariordea daude; gurea oso konplexua ez da, baina bai eguneroa eta zuzeneko, eta ondorioz behar ditu bi lagun. Errealizazioa kamera lanaz, zuzeneko muntaketaz eta, behar bada, produkzio ondorenekoaz arduratzen da. Ekoizpen departamen-

TESTUA: JUAN LUIS ROMATET  
ARGAZKIAK: ARNAITZ RUBIO APREA

Sei urteko ibilbidearen ondoren, otsailaren 12an amaituko da ‘Pasalo’ saioa. Haren buru izan da urte hauetan Arri Granados zumaiarra. Nahiz eta saioak oraindik etorkizuna zuela uste, hainbeste denbora iraun izana miraria izan dela dio. Saioari buruz eta medioak etorkizunera begira dituen erronkei buruz hitz egin dugu berekin.





dua, berriz, diru kontuez aritzen da. K-2000n platoa ere badugunez, horren arduraduna, garbitzaileak, publikoaz arduratzen dena edota erregidorea ere baditugu. Guztira 38 lagunek egiten dute lan saioan eta horien lana koordinatzeaz arduratzen naiz.

**Telebista kateekin harreman zuzena duzue. Haien iritziek ba al dute eraginik sortzen duzuen produktuetan?**

Programa guztiekin gertatu ohi da, azken finean, kate bakoitzak bere linea editoriala dauka. Gutxi gorabehera esaten dizute gauzak nola enfokatu behar diren. Harreman zuzena dugu kateekin, baina horrek ez du esan nahi guk hitzez hitz esan behar dugula beraiek nahi dutena. 'Pasalo'-ko zuzendari bezala, astelehenero elkartu izan naiz Euskal Telebistaren egoitzan astea nola planteatzen den erabakitzeko. Agian interesgarriak izan daitezkeen gaiak proposatzen dizkigute: udal batek zerbait egiteko asmoa duela edo munduko herrialde batean dagoen korrespontsal batekin zuzeneko konexioa egiteko aukera dagoela. Hori guztia jakinda, bilera izaten dugu egunero zein albiste dauden jakiteko eta horien arabera eskaleta deitzen duguna egiten dugu, non sartuko ditugun albisteak, jorratuko ditugun gaiak eta bakoitzaren ordena eta emango diogun denbora erabakitzen dugun. Saioa prestatzerako orduan ez dira kateak sartzen; askatasun handia dugu arlo horretan. Bestela zoramena izango litzateke.

**Pantailak ematen duen irudia ezagutzen dugu ikusleok. Sukalde kontuak erabat desberdinak izango dira.**

Telebista industria bat da eta dena mekanizatuta dago. Helburu bakarra izaten dugu eta da ikusleengana heltzea. Ideia artistikoa izanda ere, ideia hori bideratu behar da helburu horretara.

**Eta ikusle kopuru jakin batera ez bada heltzen, aldaketak egin behar dira.**

Ez da hain automatikoki izaten. Hori ere erlatiboa da. Guk, adibidez, egunero jasotzen ditugu audientzien zenbakiak. Ez bakarrik izan dugun audientziaren datuak, baita minutuz minutukoa ere. 'Pasalo'-ren kasuan, badakigu zein unetan sartu den kolabo-

ratzaile bat edo gai bat, eta hurrengo egunean hortik zer etekin ateratu dugun ikusten dugu.

**Eta, esan dezagun, kolaboratzaile bat agertzen den bakoitzean zenbakiak behera egiten badute, horrenak egin du!**

Oso krudela da hori esatea. Halako zerbait gertatzen bada probak egiten dituzu. Demagun kolaboratzaile bat etortzen dela eta beti beste batekin kointziditzen duenean zenbakiak behera egiten dutela. Hasieran proba egiten duzu bikote hori desegiten edota beste egun batera eramaten. Baina gaiak, egunak edota jende desberdina izanda ere, kolaboratzaile horrekin zenbakiak behera egiten badute... Egia da telebista oso medio krudela dela.

**Kolaboratzaileak aipatu dituzu. 'Pasalo'-ren kasuan nola aukeratu izan dituzue pertsona horiek?**

Gure saioan pluraltasuna eta aniztasuna islatzen saiatu gara, nahiz eta egia den beti ez dugula lortu. Baina pluraltasun eta aniztasun ahalik eta handiena nahi badugu ere, bizitasun pixka bat ere behar da, gurea, azken finean, entretenimendua baita. Gure asmoa ez da inoiz izan gauza burutsu bat egitea; ez dugu inoiz pontifikatu nahi izan. Horretarako beste saio batzuk, beste debate batzuk edo beste formatu batzuk daude. Hala ere, ardura pixka bat sortzen dizu konturatzek iritzi bat sortzen ari zarela.

**Kolaboratzaile batzuk, beraien ideia politikoengatik edo beste arrazoi batzuegatik, nahiko iskanbilatsuak izan dira.**

Baina engantxatu egiten dute. Paloma Zorrillagatik ari zara, ezta? Saioan azaltzen denean dei eta e-mail pila bat jasotzen dugu. Baina konturatzen gara ez dela audientzia galtzen; alderantziz, agertzen denean gora egiten du. Horrek zer esan nahi du? Ez zaigula gustatzen, baina ikusten jarraitzen dugula. Kontraesana da, baina horrelakoa da telebista.

**Esan izan da 'Pasalo'-ko kolaboratzaileei aurrez gidoi antzerako bat ematen zaiela. Hala al da?**

Aste hasieran erabakitzen dugu zein kolaboratzaile erabiliko ditugun eta aipatutako eskaleta hori egin ondoren, eta aukeratutako gaiaren arabera, kolaboratzaile bati edo besteari deitzen zaio. Beraiek badakite zertaz hitz egingo den saioan. Egiten duguna da iritzi kontrajarriak izan ditzaketen solaskideak bata bestearen aurrean jartzea mahaian. Kolaboratzaile horiek zalantzarik badute deitu egiten digute, baina bestela beraiekin ez dugu apenas hitz egiten. Guk ez diogu inoiz, inoiz, inoiz adierazi kolaboratzaile bati zer esan behar duen. Esaten dituzten astakeria batzuk ezin dira aurrez idatzitako gidoi batean jarri!

### **Eta zer pentsatzen duzu halako astakeria bat botatzen dutenean?**

Beraien iritzia dela. Askatasun guztiarekin hitz egiten dute, horretarako eramaten ditugu eta. Onartzen ez dugun gauza bakoitza dira irainak egitea, zenbait gaiekin sartzeta eta ideia batzuk defendatzea.

### **Indarkeria, adibidez.**

Bai, baina ez Euskal Telebistak hala esan digulako. Giza eskubiak guretzat ukiezinak dira.

### **Alberto Surio EITBko zuzendari izendatu ondoren solaskide batzuk ez ziren gehiago agertu.**

Ez zen inongo kasualitatea izan. Iruditzen zitzairen beraiek zuten proiektuan ez zutela lekurik eta zenbait gauza ezin zirela esan telebistan.

### **Igarri al duzue zuzendaritza aldaketa?**

Igarri duguna da programa amaitu egiten dela.

### **Inongo azalpenik jaso al duzue?**

Ez. Begira, gauzak hasi eta bukatu egiten dira eta telebista munduan mirari bat da sei urtez irautea. Arrakasta izan dugulako gertatu da hori. Share aldetik une honetan katearen gainetik gaude, nahiz eta egia den katea oso gaizki doala. Une honetan 12,4 puntuko sharea dugu. Baina, pasa den urteko ekaina 19 punturekin amaitu genuen. Kontua da orain jaitsi egin dela eta horretarako arrazoi asko daude. Beste kateen konpetentzia gogorra –prime time delakoa arratsaldera mugitu dela diote aditu guztiek–, Lurreko Telebista Digitalaren (LTD) etorrera... Gauzak amaitu egiten dira, baina uste dut programa honek, edo hobe esanda, formatu honek, gaurkotatua ardatza duen programa batek, oraindik bazuela etorkizuna. Baina beste saio batekin ordezkatzea erabaki dute.

**Antxon Urrosoloren saioak hartuko du lekua. Esan izan**



Ametz  
Arzallus: “Ane  
Igartiburuk  
zeukan  
kamerino bat  
beretzat, eta  
gu zortzirok  
beste bat



## “Telebistaren adiktoa naiz”

**H**ogei urte inguru daramatza Arrik telebista munduan eta badirudi oraindik medioak ez duela aspertu. Etxera heltzerakoan telebistatik deskonektatu nahi duten bere lankide batzuk ez bezala, Arri aparatuen aurrean jarri ohi da etxean ere. “Telebistaren adiktoa naiz. Edozer gauza ikusteko gai naiz. Telebista niretzat plazerra da”, dio irribarre bat eginaz. Pantailaren aurrean, baina, beste ikuspuntu batekin jartzen dela gaineratzen du: “Saioak ikuslearen begiradarekin ikusten saiatzen naiz. Saio bat gustatzen bazait edo atentzioa pizten badit, saiatzen naiz ez ikusten profesional baten ikuspuntutik, ikuslearengatik baizik. Horrela ikustea beharrezkoa da, bestela ezin duzu eta ezer sinetsi. Profesional moduan ikusten baduzu, ez duzu saioaz disfrutatzen”.

Ehunka kate, milaka saio, zer da gustukoa duena medioan: “Denetik ikusten dut. Ondo geratzeko esan beharko nuke telesail amerikarrak gustatzen zaizkidala... Ba ez! Ikusle bezala ez zaizkit gustatzen. Lanean ikusten ditut tendentzia batzuk sortzen dituztelako. Docu-soap delakoak (‘Ajuste de cuentas’) gustatzen zaizkit edo ‘Supernanny’ bezalako docu-realityak. ‘Gran hermano’ dagoeneko ez zait gustatzen, baina hasiera hartan telebista aldetik oso esperimentu interesgarria iruditu zitzaidan. Lehiaketak ez zaizkit batere gustatzen, baina bai informatiboak; esan daiteke adikzioa diodala informazioari”.



**7 MARES**  
7 MARES izoztuak

Arrain eta mariskoak  
Barazkiak eta aurrez prestatutako jakiak

Zuloaga plaza, 1  
tel. 943 862 309

**a3**

Alai auzategia 8  
20750 Zumala (Gipuzkoa)

Diseinu zerbitzuak  
tel.: 943 14 31 22

Kopiak eta materiala  
tel/Faxa: 943 14 31 20

a3 kopia eta diseinu zerbitzuak  
a3zumala@terra.es

**AIZPURUA**

LIBRURU DENDA

Aita-Mari auzategia, 17  
tel. 943 861 569

**ALBERDI**  
dekorazioa

• Eskaiola  
• Pladur-a

696 726188  
943 143261

**ALGORRI** TABERNA

ERRIBERA KALEA 2 - ZUMAIA

**ANA**  
ETXEO ZAPATAS

Ignacio Zuloaga enparantza  
tel. 943 861 157

anietxeokozapiak@telefonica.net

**D'Ana**

ILEAPAINDEGIA

Kantauri plaza, 6. behea  
tel. 943 117 408

**OKINDEGIA**  
Arkiepe

Nagusia, 2 - tel. 943 861 521  
ZUMAIA

**OGI-EDER**

**ARRUTI**

Baitasar Etxabe 2/8  
Zumaia 943016428

**AUTOS ZUMAIA**

Urola plaza, 3-5  
tel. 943 861 485

**Bakun**

ITZULPEN ETA ARGITALPEN  
ZERBITZUAK S.L.

San Isidro, 25  
20749 Arroa

tel./faxa 943 148 306  
bakun@euskalnet.net

**Basodi**  
albaitaritza

Albaitaria  
Inaki Garmendia

Basodi, 7, behea - tel. 943 143 310  
velerbasodi@basodidivinet.com  
www.basodidivinet.com

Gorbea: 11-13 / Arretuak: 15-19:30 / Astelehen goizean eta larunbatean itxia  
Larrietxebarako: 605 728 797 Etxez ebeko zerbitzua

**BASUSTA**  
ERRETEGIA

Patxita Etxezarreta, 25  
tel. 943 862 073

**Braky's**  
Okindegia Kafeetgia

Izaga kalea, 2  
20750 Zumala (Gipuzkoa)  
Tel.: 943 57 07 79  
Móvil: 649 967 289

**EGOKI**

Erloju eta bitxi denda

E. Gurrutxaga plaza, 6  
tel. 943 861 787

**BEDUA**  
**ITURGINTZA S.L.**  
ANTONIO AZPILLAGA

**-KALEFAKZIOA**  
**-ZORU BERO-EMALEA**  
**-GAS INSTALAZIOA**  
**-GAS NATURALA**  
**-BAINUGELAK ETA SUKALDEAK**

Jose Mari Korta Industriegunea, 9  
20750 ZUMAIA - Gipuzkoa  
tel. 943 143 369



**da oraingo zuzendaritzarekin afinitate politikoa duelako eman diotela saioa.**

Nork daki. Gu ez ginen afinak; ez etsaiak, ezta lagunak ere. Mediaprok [La Sexta telebista katea eta Publico egunkariaren jabea; eta, diotenez, PSOErekin harreman estua duen enpresa] orain hiru urte erosi zion K-2000 BBK bankuari. Printzipioz, Eusko Jaurlaritzako gaur egungo agintarien hurbil egon beharko luke Mediaprok, baina egia bakarra da programa kendu digutela. Ez dakit zein izan den arrazoia edota zergatik eman dioten saio bat Urrosolori.

**Harremanik izango duzue saio berri honekin?**

Gurea da Euskal Herrian platoa eta zuzenean emititzeko gaitasuna duen ekoizpen etxe bakarra eta platoa eta medio teknikoak alokatuko dizkiogu. Saio berriaren bulegoak K-2000n izango dira eta saioa Galdakaon dugun platoon, gure kamerekin eta gure medio teknikoekin egingo ditu. Edukia eta giza taldea bereak izango dira.

**Gustukoa al duzu Urrosolo?**

Nik berarekin lana egindakoa naiz orain urte asko Sirimiri ekoizpen etxean. Beraz, ez naiz batere objektiboa. Bere lanaren jarraitpenik ez dut egin. Badakit Telemadriden ibili zela, Canal Sur-en ere bai, dokumentalen bat ere egin du, baina uste dut aspaldi kate handietan ez duela ezer egin.

**Otsailaren 12an amaituko da 'Pasalo'. Zer asmo dituzu etorkizunera begira?**

K-2000n edukien departamentu bat dugu eta produktu berriak garatzen saiatuko gara. 'Kalakak' aurrera jarraituko du oraingoz; printzipioz apirila arte dugu sinatuta. Ikusi beharko dugu zer gertatzen den 'Que vida mas triste'-rekin. Beste produktu batekin ari gara lanean La Sextarako, TVEko Canal Culturarako ari gara zerbait prestatzen, eta baita ETBrako ere. Produktu dezente ditugu eta pentsatzen dut zerbait aterako dela.

**'Pasalo' programaziotik kendu badu ere, ETBrekin harremanetan jarraituko al duzue?**

Ezin dugu kontraktotik pentsatu. Informatiboak kenduta, beste eduki guztia ekoizpen etxeekin lantzen du Euskal Telebistak. ETBrekin gehien fakturatzen duen hiru ekoizpen etxeetako bat da gurea.

**Telebista mundua izugarri aldatu da urte gutxiren bueltan. Lehen kate gutxi batzuk zeuden eta orain LTDaren bidez chunka. Nola ikusten duzu etorkizuna?**

Kate gehiago izanda, berez aukera izan beharko genuke, eduki gehiago sartu beharko dituzte eta. Baina zer eduki mota? Eta zer preziotan? Telebista egitea oso garestia da. Beraz, dugun erronka prezioak merkatzea da. Teknologia ere oso aurrera doa, baina ez dakigu gure produktuak teknologia berrietara egokitzen. Dekoratuarekin ere antzera gertatzen da. Izango diren aurrekontuekin, ezingo ditugu plato handietan egiten diren programak planteatu, oso garestiak direlako. Oraingo programa asko leku txikitari edo kalean bertan egiten dira. Aspalidanik ari gara hausnarketa hori egiten eta proiektu merkeagoak aurkezten. Gero eta diru gutxiago izango da ekoizpenerako eta hor izango da gure erronka.

**LTDaren edo kablearen bitartez kate mordoa jasotzen da, baina eskaintza betikoa dela esan daiteke.**

Une honetan gehienbat errepikapenak dira. Kate handi bakoitzak lau kate ditu LTDan eta antzinako telesailak eta errepikatutako programak ematen dituzte. Berrikuntzak oraingoz urriak

dira. Esaten da hor aukerak izango direla, baina ez dakigu. Horretan gabilta.

**Telebistaren etsai handienetakoa Internet izan daitekeela ere esaten da. Esan ohi da ikusleak ikuspuntu desberdina duela pantailaren aurrean; lehen ematen zitzaiona irensten zuela eta orain nahi duen programaren bila joaten dela.**

Egia da gazte jendeak, 15-17 urte bitartekoak, ez duela telebista lehen bezala ikusten. Baina ordenagailuan zer ikusten dute: YouTube bideoak edo jaitzitako saioak. Horiek, baina, telebistako aurrekontuekin egindako saioak dira, ez Internetarako egindakoak. Oraindik ez dakigu nola egin negozioa Internetekin; nola aterata etekina horri? Guk ekoizten dugun 'Que vida mas triste' Internetarako sortu zen lehen saioetakoa izango da. Horren sortzaileak ez ziren bi zoro; telebistarako lan egiten zuen jendea zen, eta igande arratsaldeetan umorezko saio hori egiten zuten etxean. Hala ere, beraiek badakite telebista desberdina dela: handiagoa da, protokolo batzuk bete behar dira, epe batzuk... telebistarako egokitu egin behar izan zen saio hori.

**Kritika ugari egin zaizkio azkenaldian telebistari. Askotan aipatu da, adibidez, telezaborra hitza.**

Horrekin zer esan nahi da? Ikuslea tontoa dela? Ergela? Ez dut uste. Agian gu gara ergelak. Asko hitz egin da azkenaldian telebistaren paperaz, baina ez dugu ahaztu behar telebista entretenitzeko tresna dela. Bai, informatu nahi baduzu, badaude horretarako kateak; baina bestelakoak entretenitzeko dira. Eta uste dut demostratu dugula informazioarekin eta gaurkotasunarekin programa entretenitu eta ulerterraz bat egiteko gai garela.

**Beraz, zein uste duzu izango dela zuen erronka?**

Ekoizpen etxe handiek telebista kate handiei formatu handiko produktuak aurkeztuko dizkiete eta besteok proiektu txikiak lantzerantz dedikatu beharko dugu. Telebista autonomiko eta lokalen kasuan, berriz, duten abantaila hurbiltasuna izango da: bertako gaiak jorratzea eta hemengo jendea aurkeztea. Hori izango da kate horien erronka. ■



# PLANOETAN MARRAZTU- TAKO BESTE ZUMAIA



# ETXEBIZITZAK SANTIAGOKO PADURAN



**U**rola ibaiak bere itsasoratzean eskuinaldean sortzen duen paduraren eta hareatzaren “aprobetxamendua” jomugan egon da belaunaldiz belaunaldi. Padurari etekina ateratzeko asmoarekin aurkeztu zuen Victoriano de Celaya ingeniariak bere proiektua 1906ko irailaren 15ean: padura lehortu eta etxebizitzak egitea. Horrela dio Udalari aurkeztu zion txostenean: “Este proyecto tiene por objeto sanear la expresada marisma, impidiendo el acceso del agua a la misma por medio de un dique (...) a fin de una vez saneada, pueda destinarse el terreno ganado al mar al ensanche de la población, mediante la construcción de casas, paseos, etc., de que tan falta se halla la expresada Villa de Zumaya”. Bistan da XX. mendearen hasieran ere etxebizitza eskuratzeko arazoak zeudela Zumaian. Horrela jarraitzen du ingeniariaren azalpenak: “Efecto de la escasez de casas de vecindad en este pueblo, en relación con el número de sus habitantes, resultan los alquileres muy subidos, haciendo muy penosa la vida de la clase obrera, pues tiene que invertir gran parte de sus ganancias en el pago del alquiler de su vivienda”. Badirudi etxebizitzaren arazoa ez dela berria Zumaian.

Proiektua badakigu ez zela gauzatu, langileentzako etxebizitzaren ordez gaur egun Zuloagaetxea dagoelako leku horretan. Izan ere, Victoriano de Celayak proiektu hau aurkeztu eta lau urtera, 1910ean, Ignacio Zuloaga pintore ospetsuak erosi baitzuen lursaila, enkantean. 1914an bukatu zuten Zuloagaetxea, eta 1917an eraiki zuten itsasotik babesteko eta hondartzatik bereizteko horma.

TESTUA ETA FOTOMONTAJEAK: GORKA ZABALETA

Imajinatzen al dituzue etxebizitza blokeak gaur egun Zuloagaetxea dagoen lursailean? Eta baratzeak edo tailerrak Santiagoko paduran? Eta trenbidea Txomin Agirre kaian barrena? Eta I Formulako zirkuitu bat Gorostiagako poligonoan? Eta zentral nuklear bat Mendatan? Noizbait norbaitek proposatutako proiektuak dira guztiak.

**A**rgazki zaharrek salatzen dute etengabe ari garela gure inguru-nea eraldatzen. Etxebizitzak eraiki ditugu lehen baratzek edo tailerrak zeuden lekuetan, edota baserriak bota errepedeak behar genituelako. Zumaia Oroituz liburuan edota fototekan aurkituko dituzue hamaika adibide. Etengabean aurrera egin behar-aren premiaz irentsitako baratzek, tailer edota baserri haien irudia uste baino azkarrago lausotzen zaigu oroitzapenen gela ilunean. Zuri-beltzeko argazki batek begi aurrera ekartzen digun arte.

Orduan ohartzen gara denbora gutxian zenbat aldatzen den herri bat, orduan jabetzen gara inguratzen gaituena eraldatzeko zenbateko ahalmena dugun.


Erreportaje honetan, baina, beste ariketa bat proposatzen dizuegu: paper hutsean gelditu ziren hirigintza proiektu batzuk ekarri ditugu, imajina dezagun nolakoa litzatekeen Zumaia gauzatu izan balira. Proiektuak gauzatu edo ez, aldea sekulakoa delako.

**G**arai bertsukoak dira Santiagoko padura lehortzeko beste bi proiektu. Lehena Ignacio Fort azpeitiarrak aurkeztu zuen, 1899an. Gipuzkoako Aldizkari Orokorrak horrela jaso zuen bere eskaera, 1899ko irailaren 2an: "(...)Solicita autorización necesaria para sanear las marismas denominadas de Santiago (...). El terreno, una vez saneado, se destina al cultivo (...)". Garai hartan paduren saneamenduz ari dira etengabe, leku zikin eta infekzio fokutzat baitzituzten orduan hezeguneak. Baina Udala, herritar gehienak eta kofradia aurka agertu ziren, errioa estutzen zuelako eta hori portuko jarduerarentzat oztopo zelako. Erriberetan uholde arriskua ere areagotzen zuela ere argudiatu zuten. Fort jaunaren asmoak paper hutsean gelditu ziren, beraz.

Baina handik urte gutxira, 1907an, antzeko beste proiektu batekin agertu zen Manuel de Arango jauna. Bere proiektua, gainera, ez zen barrualdeko padurara mugatzen. Gaur egun Santiagoko hondartza dena ere dike batekin ixtea proposatzen zuen. Hau da, gaur egun ontziolaren ondoan dagoen zabalgunea, kirol portuak hartzen duen eremua, padura, Zuloagaetxearen lursaila eta Santiagoko hondartza itxiko litzukeen dikea eraiki nahi zuen Arangok, barruan geldituko zen eremua lehortu eta lurra lortzeko. Udala aurka agertu zen berriro. Horrela dio, pasarte batean, Udalak emandako erantzunak: "Debiendo amparar el Ayuntamiento toda riqueza creada y no sacrificarla a problemáticos progresos, debe en este informe salir en defensa de los terrenos de las riberas viejas y nuevas, cuyo nivel medio es inferior al de las pleamares vivas equinociales, y por lo tanto fáciles de anegarse, si el encauzamiento que ocasionaría en el río el proyecto del señor Arango hiciera rebasar el nivel del agua". Arangoren proiektua ere bertan behera gelditu zen. Baina imajina dezagun Udalak padura erabat lehortzeko


proposamena onartu eta gauzatu zuela. Zumaian bertan ez zaigu adibiderik falta lur berri horien erabilera irudikatzen. Basadiko ingurunea padurak ziren –ikus mapak–, XVIII. mendearen amaieran lehorteak erabaki zen arte. Nekazaritzarako erabili ziren aurrena –Santiagorako Fortek proposatu bezala–, industriarako eta batez ere etxebizitzak eraikitzen, ondoren.

## PADURA LEHORTZEKO BESTE BI PROIEKTU





## BALEKE +



# TRENAK MOILAN BARRENA



**H**erriko gazteenek agian ez dute jakingo gaur egun Gernika parkeak hartzen duen eremu horretan trenak zebiltzala atzera eta aurrera, Zumarragatik, Azkoititik edota Azpeititik zekartzaten merkantziez beteta. Eta duela gutxi arte herriko anbulatorioa izan den eraikina tren geltokia zenik ere, akaso, ez zien inork kontatuko. Hain zuzen ere, trena porturaino irits zedin eraiki zen leku horretan moila berria.

Baina, hura gauzatu aurretik, beste bat izan zen trenarentzat pentsatutako ibilbidea. Izan ere, hasiera batean Alonso Zabala ingeniariak proposatu zuen trenbidea moilaraino eramatea; hau da, Jadarre parean-edo Narruondo ibaia zeharkatu, ibaiaren ezkerretik Zubitxikia pasa eta gaur egungo Txomin Agirre kaian —orduan Santillanaren moila— barrena Pulpo pareraino, gutxi

gorabehera. Herri barrura sartu nahi zuen trena Zabala ingeniariak.

Baina proiektua albo batera utzi zuten, arazo asko sortzen zituelako. Horregatik erabaki zuten moila berria eraikitzea. Baina, imajinatzen al duzue nola baldintzatuko zukeen trenbideak herriaren bilakaera herri barruraino eraman izan balitz?





## ZENTRAL NUKLEARRA ETXE ONDOAN

**E**nergia nuklearrarena gai nagusi izan da azken asteotan Espainiako komunikabideetan, zentral nuklearren hondakinak hartuko dituen zabortegia non eraiki erabaki behar duelako Espainiako Gobernuak. Hautagaiak ez dira falta, ia dozena bat herri prest agertu baitira. 1970eko hamarkadan ere prentsako lerroburu asko hartu zituen energia nuklearrak, baina giroa zeharo bestelakoa izan zen orduan. Iberduerok bi zentral nuklear eraiki nahi zituen Euskal Herrian, bata Lemoizen eta bestea Deban, Sakoneta-Mendata inguruan. Gizartea erabat kontra agertu zen eta Debako proiektua bertan behera gelditu zen. Lemoizko zentrala ez zen inoiz martxan jarri, baina eraiki, eraiki zen. Imajinatzen al duzue gaur egun zentral nuklear bat Zumaiatik hain gertu? Gezurra dirudi, baina duela 30 bat urte Iberdueroren iritziz zentral nuklear bat hartzeko leku ezin aproposagoa zen hura, naturgune babestu da gaur egun.



**ekin**  
elektrizitatea, s.l.

Erribera kalea, 6 20750 Zumala tel. 943 143 097  
ekin@ekinl.com www.eekinl.com

Instalazio elektrikoak  
Telekomunikazioak  
Informatika  
Internet

 **DIGITAL+**

**Endara** Zumala

Erribera, 8 tel. 943 861 694

**ERNTO TABERNA**

V. Arrate, 3 Tel. 943 860 045

**ERROTA**

**OPIL-OKINDEGIA**  
SANTILLO AIZUA, 32  
20750 ZUMALA  
TEL: 943860000  
943860612  
FAX: 943860977  
errot@errot-okindegia.com

mugikorra eta ADSL-a

 **vodafone**

**ERTZ informatika**  
Beheko plaza tel./faxa: 943 143 395

**FARMA ZUMAIA**  
Parafarmazia • Belar-denda  
Tel. 943 865 323

**PRODUKTUAK**

- Urte eta haurrentzat, dietetikoak, kosmetikak, hanka eta eskuen zaintzarako...

**ZERBITZU BEREZIAK**

- Dietista, Naturopata, Indologo, Flores de Bach, Masajeak (Terapeutikoak, Kirolentzako, Lesioetako, Eskuen, Arbatetaren, Buroko minen, Zirkulazio arazoan... konpokoak), Akupuntura: horietatik eta horietatik gabe.

SARADI KALEA, 2 BEHEA - ZUMAILA

**Galdona**



**burdindegia**

Mendako marinela, 1 tel. 943 861 117 - 943 143 348  
Juan Belmonte, 15 faxa 943 861 330

**GANBARA**

Taberna

Juan Belmonte, 5 tel. 943 861 057

**Garoa**  
kafetegia

Txomin Agirre kaia Tel. 943862181

 **GAZTE, S.L.**  
ELEKTRIZITATEA

*Era guztietako instalazioak etxebizitza, pabiloi eta herriko argietan*

Trenbide pasealekua, 5. pabilioia tel./faxa 943 143 402 mugikorra 610 262 617



**GOIKO TABERNA**

Erribera, 9 tel. 943 861 391

**GOFI**  
Gazte Surf

Baltasar Etxabe, z.g. tel. 943 860 959

**SPOT**  
SURF DENDA

Ortega y Gasset, 2 tel. 943 860 768

**OUTLET**

- %50
- %60
- %70

Aita Mari (postetxearen aurrean)

**Gure Txokoa**  
taberna

Upela plaza, 4  
20750 Zumala  
Tel.: 943 86 09 70

**Harvest**  
English School

...eta udaran Ingalaterrara ingelesa praktikatzen

San Jose, 11 bis tel. 943 143 334

**ibai gain**  
inmobiliaria

**RICARDO AZKUE**  
API 399

Txomin Agirre 4, beheka  
tel. 943 862 651  
faxa 943862748

rijazcue@euskalnet.net

**Idoia**  
Moda denda  
Andragaietan espezializaturik

Julio Beolide, 2 beheka Tel. 943 86 03 01  
idoiazumaila@gmail.com



# FORMULAKO ZIRKUITUA

**1980**ko hamarkadan ere izan zen Zumaian proiektu dei-garririk. Zer eta, 1 Formulako zirkuitu bat Gorostiagako poligonoan. Horrela esanda, adar jotzea dirudi, baina proiektuaren diseinua nahikoa aurreratuta egon zela gogoratuko dute zumaier askok. Hori bai, benetako pausoak emateko garaia iritsi zenean, proiektuak ez zuen aurrera egin eta ez da gehiago haren berririk izan. Baina hainbat datu ezagutzen ditugu. 1982an eskatu zuen Donostiako Circuitos de Euskadi elkarteak Zumaian 1 Formulako zirkuitu bat egiteko lehen azterketa. 2.500 milioi pezetatik gorako aurrekontua aurreikusi zuten, eta asmoa ez zen auto lasterketetara mugatzea. Arraunketa edota txirrindularitza probak antolatzeko ere pentsatua zegoen. Izan ere, pistaren eta harmailen artean Urola ibaia zegoen, eta horrek aukera ematen zuen estropadak ere antolatzeko. 140.000 ikuslerentzako eta 55.000 autorentzako lekua izango zuen, eta, autopista alboan izanda, ondo komunikatuta egongo zen. Bilerak batzuk egin zituzten udal ordezkariak, Jaurilaritzako ordezkariak eta Bernie Ecclestonek berak –1 Formularen nagusia–. Baina, esan bezala, azkenean ez zen zirkuiturik eraiki. Gaur egun Joxe Mari Korta industriagunea dago leku horretan.

**P**roiektu honi buruzko informazio zehatzik ez dugu aurkitu, baina gutxienez aipatzeko modukoa iruditu zaigu, tankera bereko beste proiektu bat eztabaidagai delako gaur egun Donostian –Saguesen–. Inpernupeko kala eta Itzurungo hondartza lotuko zituen pasealekua eraikitzeke asmoa plazaratu zen gure herrian, duela ez urte gehiegi. Pasealekua harraldearen gainetik egitea zen ideia. Baina horretan gelditu zen. Gaur egun biotopo babestuen araudiaren kontrakoa litzateke.

## Zumaiako industria ondarearen informazio zentroa

Herriko industria ondareari buruzko informazioa biltzeko talde bat ari da lanean duela hilabete batzuetatik hona Zumaian. Amaia Miner, Oihana Artetxe, Pedro Etxabe, Javier Carballo, Xabier Alvarez Yeregi, Rafael del Pilar eta Ismael Manterola dira kideak. Oraingoz datu bilketa ari dira egiten, baina aurrerago informazio hori guztia herriratzeko helburua ere badute. Joan den abenduan egin zuten ekimenaren aurkezpena Algorri Interpretazio Zentroan. Pedro Etxabek azaldu zuenez, kezka batek bultzatu ditu lan hau egitera: “Inork ez du zalan-tzan jartzen eliza bat babestu behar denik; enpresa baten hondarrak mantendu behar direla ez da ulertzen, ordea. Ez zaio baliorik ematen. Zumaian bertan ia dena suntsitu egin da. Gure ustez, industri ondarea herri baten kulturaren parte da. Zenbat ordu pasa dituzte zumaierrek lantoki haietan?”. Gure kulturaren parte hori ez galtzeko informazioa biltzen ari dira. Besteak beste, Zumaiako Udal Artxiboko paperetan ari dira bilketa egiten, eta bilaketa horietan, tarteka, bestelako kontu bitxiak ere aurkitzen dituzte. Erreportaje honetan jaso ditugun lehen hiru proiektuak, esate baterako.









# Korrika eta presaka

Korrika eta presaka nindoan  
Itzurun hondartzara,  
eguneko azken izpiak  
koloretsuak izango zirela  
ikusten nituen iada eta  
horrelakoetan aldapa  
madarikatua bukaezina  
dirudi. Mila gauza  
pentsatzeko denbora  
ematen dizu, motxilatik  
kamera atera eta bide  
erdian objektiboa aldatzen  
hasi nintzen, Tele zooma  
kenduko diat, angularra  
edo ultra angularra jarriko  
diat denbora asko ez  
galtzeko,,,,, marea nola  
ote dago goian, behean...  
pizina aldera joango naiz  
goian badago, San Telmo  
aldera joango naiz behean  
badago.... gauza guztiak  
hartuko ote nituen....  
Buruhauste onen erdian,  
burua altxatu eta hortxe  
ikusi nuen argazkia!  
Argi eta itzalen artean  
kontraste handia egon arren  
eta zuzenean eguzkitik  
datorren argiari zuzenean  
argazkirik ez ateratzeko  
gomendioa egiten duten  
arren ezin izan nintzen  
gelditu saiakera egin gabe.  
Tele zooma berriro  
ezarri eta oinez martxan  
nindoalarik bizpahiru  
argazki bota nituela uste  
dut, hemen duzue emaitza.  
Ea gustatzen zaizuen,  
gero arte..





# SARTU-IRTEENA KIWIEN HABIAN

(EDERREN GUZTIAK EMAN NAHI ETA EZIN. Bere urtebetetze festako gozoki zorroa izango dena gurasoen eskuetan duen haurrari menua aukeratzea eskatuz gero, denboraldia behar izaten du pentsatzeko, eta ziurrenik

kabitzen direnak baino gehiago nahi eta damu aurpegiaz zorroratzen ditu. Antzera ibili naiz nire oroimen gozoen poltsatik kontatu beharrekoa aukeratzekoan, baina beti egongo da hor hitzen dendara itzultzeko aukera...)

TESTUA ETA ARGAZKIAK: IMANOL SESMA

ERREPORTAJEA



## ◀ LADY KNOX (I)

Sekulako ikusminaren erdian  
hasi zen Rotorua inguruko  
Lady Knox geyserra bereak  
egiten.





ugari dago, nahiz eta Doubtful Sound eta Milford Sound diren bisitarien zatitza hurbilerraz. Te Anautik abiatu eta sekulako parajeen erdian furgonetaz 120 km egin eta Hommer Tunnel ezaguna gurutzatu ostean (tartean ez dago herrizka edo gasolindegia bat bera ere), bigarrena ezagutu genuen.

Han, turistentzat prestatutako itsasontziatariko batean sartu eta bertatik bertara gozatu ahal izan genuen 1.500 metroko garaierara iristen ziren mendi horma bertikalak itsasoko ura ebakitzen zuten moduan, ura horietatik erortzen zen bortizkeriaz edo Tasman itsasotik zetorren haizearen indarrak. Uhartea honen ezaugarri nagusienetakoa den 'laino zuria luzea' berandu ibili zen, zorionez, eta ez gintuen hango parke natural zoragarrian itzulera bidean murgildu ginen arte harrapatu. Bai, ordea, 'sandfly' deituriko euli hodei beltzak. Neurriagatik, akaso, ez dira inongo postaletan agertzen, baina horien presentzia masiboak derrigorrezko egiten du uxagarrien erabilera.

#### Eguraldia lagun

Eguraldiari zegokionean zorte ona izan genuen Otago penintsulan une batez Euskal Herrian sentitu ginenean ere (errepideetako seinale horiak aldatuz gero nahasteko modu-

Ametz  
Arzallus: "Ane  
Igartiburuk  
zeukan  
kamerino bat  
beretzat, eta  
gu zortzirok  
beste bat

koa), edo Bluffen Hego Polotik 4.800 kilometrotara gelditu eta haize antartikoa hezurretan sentitu genuenean. Baita Arthur Passeeke eski pistatara errega ziren ke artean ibili ginenean, Little Riverko lakuaren ertzean gozatutako arrats zoragarrian, Kaikourako foken konpainian, Abel Tasman parke nazionalan urertzeko ibilbide zoragarria egin eta itsasoan lehenengoz bainatzean, nahiz beste hainbat tokitan ere.

Lainoaren aurpegi grisena bidaiaren hastapenean ezagutu genuen. Glaziarretako uren partikula mineralen ondorioz kolore urdin bizikoak diren Tekapo eta Pukaki lakuak ez zizkigun estali; ezta Tasman glaziarreko uretan kubatutako jela kubo



#### ► FOX

Fox glaziarreko horman zehar urak eginiko bidea

#### ► FRANZ JOSEF

Duela 150 urte, tarte hau eta gehiago betetzen zituen Franz Josef glaziarreko mihi izoztuak





**Maluta**  
jatetxea + taberna

oilasko erreak • kasxuelitak • ogitartekoak  
Izaga, 2 Tel. 943 860 224

CROISSANTERIA



pizzak  
hanburgesak  
bokatak...

**marina**

Baltasar Etxabe, 2 Tel. 943 86 22 46



**Maxi**  
solarium

ileapaindegia  
estetika

etxezarreta, 9 tel. 943 861 021 lasonet.com/maxi



**MENDI - ONDO C.B.**  
Elektrizitatea

Urola plaza, 21 tel. 943 860 074 - 943 861 569



**METRO**  
taberna

ogitartekoak  
pintxoak

Upela plaza, 7  
tel: 943 537 901

**"Muagi"**

errehabilitazioa  
kirol medikuntza  
fisioterapia

RPS: 034/97 Aita Mari, 3. blokea tel. 943 861 691

**Nikol Enea**



TABERNA

Amaiako plaza



**OSA**  
BERNIZATUAK

Zoruen kutxilaketa eta bernizaketa  
Parketa jartzea

Estazioako kalea, 12 tel. 943 861 412 - 686 364 149



**OSKARBI**  
KIROLAK

Alai Auzategia, 14 • Arrantz, 1 Tel. 943 143 112  
oskarkikirolak@euskalnet.net



**OSTOLAZA**

OSTOLAZA ZUMAIA, S.L.

Joxe Mari Korta Indusirigunea, A1 - 4. pab. 20750 Zumaia (Gipuzkoa)  
Tel. 943 86 50 68 • Faxa 943 86 13 45  
www.ostolaza.com • e-mail: ostola@ostolaza.com

**Ostolaza**  
Altzariak

Julio Beabide Ibiltoikia, 1  
20750 ZUMAIA (Gipuzkoa)  
mueblesostolaza@euskalnet.net Tel./Faxa: 943 86 13 25

**OTEZURI**  
KAFETEGIA

Gosariak  
Ogia  
Egunkariak

Sagarbidea, 4 Tel. 943 143 401



**PAPER** diseinu grafikoa

Roberto Gutierrez

696 211 111 • rgutierrez@rgutierrez.org • www.rgutierrez.org



**La Prima Vera**  
pizzeria

Aita Mari, 14. behea  
tel. 943 247 011

**matet**  
argazkiak

Juan Belmonte, 4, behea tel. 943 860 971

**SOLOZABALAK**



**SOLOZABALAK**

P. Etxezarreta, 16 bis tel./faxa 943 861 416

▲ KARAKORUMENKO ERREPIDEA

"Tashkurgan" jaioa joateko 4.500 metroko mendi-jartura. Polizien kontrol bat eta militarren beste bi igaro behar izan nituen. Bidaia egiteko beharrezkoa zen taxiari gidari batekin joatea. Gurriabide publikoan joateko, beharrezkoa zen Pakistaneko bisatzaileekin joatea, horrek frogatzen baitzuen Pakistanera zindozela".

- Klase teorikoak zein praktikoak norberak nahi dituen.
- Klase teoriko ikusentzunezkoen abantailak erabilia.
- Merkantziak eta bidaiariak garraitzeko eta nazioarteko agentzietarako ziurtagiriak lortzeko ikastaroak.





## ◀ MILFORD SOUND (XII)

*Itsasontzi pare bat Milford Sounden, 1.500 metroko garaierako mendien eta postaletan agertu ohi den ur-jauzi ezagunaren azpian*

## ◀ MILFORD SOUND (II)

*Milford Sound fiordora bidean aurkitutako ur-jauzi hau ez da bat gehiago besterik.*

urtuen moduan flotatzen zuten izotz zatiak ere. Bai, ordea, Mount Cook mendia. Tamalez, izen bereko herrixkaraino joan arren, ezin izan baikeen 3.754 metroko garaieran dagoen gailurraren magala ere ikusi.

### Bestelako keak ipar uhartean

Euskal Herrian ohituta gaude hodeietara; baina han ezezagunak zaizkigun erakoak ere ezagutu genituen; oroitzapen gozoen zorrotik arraultz-ustel usaindunak baitatorzkit iparraldeko uhartea oroitzean.

Hegoaldeko bazter gehienak miatuta, ferryan zeharkatu genuen Picton eta Wellington arteko itsasartea zuzenean Tongariro, Ngauruhoe eta Ruapehu sumendien inguruko parke nazionalera joateko. Australiako eta Pazifikoko plaka tektonikoen muga gertu igarotzen dela eta, eremu bolkanikoa da irla honen erdialdea. Sumendiak eta aktibitate geotermikodun guneak nonahi, beraz.

Taupo eta Rotorua inguruetan pilatzen dira bigarren horiek ikusi ahal izateko parke gehienak. Ura borborka, kraterretako lurra irakiten eta gizadiak berak asmatutako errotulagailu nahiz olio guztiak nahastuta ere lortuko ez lituzken koloreak hautesman genituen bertan. Guztia ama lurraren errailetatik zetorren arrautza ustel usaineko lurruntan paketatuta. Hala ere, esan beharra dago uharte hau ez dela hegoaldekoa bezain basatia. Ez da hain ukitugabea, eta horrelakoetan gertatu ohi den bezala, negozio bilakatzen dira naturaren bitxikeriak.

### Denak zain dituen anderea

Gogoan dut, adibidez, Lady Knox geyserraren inguruan antolatutako ikuskizuna. Egunero goizeko 10:15 aldera izaten omen da horren erupzioa. Haren inguruko parkea bisitatu os-

Ametz  
Arzallus:  
“Ane  
Igartiburuk  
zeukan  
kamerino  
bat beretzat,

tean, badaezpada, hamar minutu lehenago bertaratu ginen Maialen eta biok, ez baita jakiten honelako ebentu naturala ikusteko aukera berriz izango ote den. Hango aparkalekua ikusteak susmoak sortu zizkidan, baina geyserraren parrera heldutakoan...

Hura zen, hura, ikusminak asebetetzeko muntaia! Harmaila eta guzti, futbol partida bat has-tear zela zirudien hark. Edozein unetan gerta zitekeelakoan korrika iristen zen jendea. Argazki kameran enfokea eta enkoadrea perfektionatzeko zebiltzan gu iristerako han zeudenak... Eta eserlekuak bete zirenean (igandea zen gainera; famili txangoen eguna) *boy scout* tankeran jantzi-

tako gizon bat jarri zen tontorraren ondoan.

“Kendu hadi hortik, infusio bero hori ateratzen hasiz gero aurpegia urtuko zaik-eta!”, pentsatu nuen neure baitan. Baina tipoa lasai, geyserraren inguruko azalpenak ematen hasi zen: nondik nora sortzen diren fenomeno hauek, zeintzuk diren munduko entzutetsuenak, egunean pare bat aldiz isurtzen zuela ur beroa parean genuen zulotxo hark, orain kontrolpean zutela, substantzia naturalez osatutako pastillak botatzen zizkiotela *martxan* jartzeko... Eta esan orduko horixe egin zuen. Han hasi zen Lady Knox, (“gehien itxarondako anderea” pentsatu nuen), bereak egiten. Hamar minutuz egon ginen hari begira, baina ez zuen naturalki izango lukeen xarma bera.

### Debaldeko harribitxiak

Hala ere, bada bazter haietan ordaindu gabe gozatzeko moduko hainbat kontu. Taupo ondoko Waikato ibaiko Huka Falls ur jauzia, adibidez. Ibaia berriz lasaitu bitarteko zatian batez besteko 220.000 litro isurtzen omen ditu segundoko. Ez da ur jauzi zabala, baina sekulako abiaduran doaz tantak.



Handik urrunago, ipar-ekialdean, Coromandel penintsula ezagutu genuen. Euskal Herriekoen moduan, elkarrengandik oso gertu zeuden mendi eta hondartzak; baina hori bai, herritxo bakan batzuk (eta txikiak) topatu genituen eremu berde hartan. Askozaz ere klima epelagoa topatu genuen, eta ez genuen hango harea zapaltzeko parada hura galdu.

Ta Arau Point izan zen, hala ere, ondoen ezagutu genuen hondartza. Auckland behetik gora zuzenean zeharkatu eta Whangarei aldera kostatik joatea erabaki genuen. Hondartza pare batean geldialdia egin ostean, hartxintzarrezko bide sare batean galdu egin ginen; eta han non agertu ginen hondartza zoragarri baten aparkalekuan! Hozkailua ondo beteta genuenez eta ez zitzaizkigunez adostutako kilometro kopurua betetzeko asko falta, ondorengo bi egunetan han geratzearabaki genuen. Hori gutxi, eta bertan lo egitea legezkoa zen, komun publikoak genituen eta mundutik ia isolaturik zegoela zirudien.

Surflari koadrila bat, zaldian zebilen neska bat eta arrantzale bat besterik ez genituen topatu luzeran 7 kilometro inguru zituen hondartza hartan. Ideia bat egin dezazuen, egun batean oinez joan-etorria egitea erabaki genuen. Abiatu ginenean zeru estalia genuen, joaneko bidean euripean blai egin ginen eta itzulerarako eguzki izpi indartsu batzuei esker lehortuta geunden. Bizpahiru ordu oinez, eta hondartzaren beste muturrera iritsi gabe itzuli ginen. Bidean, ez zegoen urbanizatutako ezer ere. Hondar zurriaren gainean txirla eta ostra maskor zoragarriak ziren nagusi, ez zegoen oinatz bat bera ere, eta zeru uretan, albatrosak eta kaioak arrantza txapelketetan zebiltzan. Zoragarria da olatuak nola orrazten dituzten eta uretan nola murgiltzen diren ikustea.

Panorama hartan, erabateko lasaitasuna izan zen bi egun haietan bizi izan genuena. Hainbat eta hainbat errepide zapaldu ostean geldi geunden. Ez dezala inork pentsa, ordea, kilometro ehiza batean ibili ginenik ordura artean. Hala izatekotan, gu izan ginen harrapakinak. Berdin dio ezkerretik gidatu beharrak edo lerro bakarreko zubiak igaro beharrak. Ez dio axola autopista faltak edo tarte batzuetako gasolindegik eskasiagatik gasolina azken tanta arte estutu beharrak. Zeelanda Berriko errepideetan ibiltzeak une batzuetan gorpil gainean dabilela ahaztu eta inguruan duen guztiak irensteraino liluratzen du bat.



## ▲ ROTORUA

Rotorua inguruko parke nazional batean aurkitutako bainera termal honen inguruko arraultz-ustel usaina hodei honek ezin izan zituen kolore harrigarri hauek ezkutatu.

## ▼ MT COOK

Ur-beroa, dutxak eta guzti dohan eskeintzen zituen borda hau topatu genuen. Mt. Cook herriskan. Izen bereko 3.754 metroko garaiera duen gailurraren magalean geunden arren, ezin izan genuen ezer ere ikusi.







## ◀ TEKAPO

Glaziarretako izotzaren materialen ondorioz kolore hau daramaten Tekapo eta Pukaki lakuak, inguru eder honek babesten ditu.

## ◀ KAIKOURA

Foka kumetxoak amaren babesean lo, Kaikourako haizetan.

## ▶ JACKSON

Hego-uharteko mendebaldeko errepedearen ertz batean, Jackson Pointeko basotxo bat zeharkatzen ari da Maialen. Nonahi aurki daitezke honelako ibilbideak.



### Bero izpiak laino artean

Panorama hartan jendearen irekitasuna aipatu beharra dago. Bidean ez genuen pertsona petral edo lehor bat bera ere aurkitu. Gasolindegietan geratutakoan ere guztiek galdetzen ziguten gure ibilbidearen inguruan: “Oporretan al zaudete?”, “Nongoak zarete?”, “Gustatzen al zaizue New Zealand?”, “Laguntzarik behar al duzue?”... Hain zen matematikoa hau, une batzuetan errezeloa eta guzti sortzen zitzaigun (ohitura faltagatik-edo, tamalez).

Gogoan dut Picton aldean maori batzuk ezagutu genituenekoa. Lo egitera gindoazen tokiaren ondoan aparkatu eta garagardo batzuk edatera agertu ziren gazte batzuk, auto *tuning* batean, musika dena emanda... Furgoneta ondoko banku batera irten ginen, eta berehala hurbildu zitzaigun haietako bat: “Badakit tatuaiak asko ditudala eta itxura petrala, baina tipo irekia naiz. Nire izena Tim da”. Une hartatik aurrera erraza izan zen bera eta bere lagunekin jardutea...

70 urteko Leyland izan zen, hala ere, gure bidaiako pertsonaia nagusienetarikoa bat. Milford Soundeko itsasontzian ezagutu genuen Australiako Byron Bay inguruko “baserritar” hark hasieratik puskatu zituen gure eskema guztiak Euskal Herrikoak ginela esandakoan “Frantzia edo Espainiako zatikoa?” erantzun zigunean (hori zer zen galdetzea espero genuen). Ez ginen berarekin askorik egon, baina berehala gonbidatu gintuen etxera, gure gatazkaren inguruan ikasi nahi zuela-eta. Eta barrea aurpegian marraztuta genuela agurtu ginen...

Handik hainbat egun eta chunka kilometrotara, Christchurch hirian gure bidaiako lehenengo furgoneta itzultzerakoan, hara non topatu genuen Leyland berriz ere. Espero ez genuelako-edo, ez genuen ezagutu ere egin, baina bera etorri zitzaigun bere ohiko irribarrez gonbidapena azpimarratzera. Baina hori nahikoa ez, eta hiriko erdigunean genbiltzala berriz ere hura ikusi behar hurrengo egunean! Ez genekien elkarren berri eta ezta nora gindoazen ere, baina hiru egun ezberdinetan beste

Ametz Arzallus: “Ane Igartiburuk zeukan kamerino bat beretzat, eta gu zortzirok beste bat denontzat”

hainbeste lekutan elkar birtopatu eta berriz ere bere etxera joateko esan zigun. Destinoaren eta kasualitatearen nahia dela eta, Byron Bay inguruko baserri hartara joango erabaki genuen.

### Famili giroko helmuga

Bidaiako azken bi egunak Auckland hirian igaro genituen. Zumaia bat ere handik bizi zela entzuna genuen arren, ez genuen berarekin kontaktatzerik izan; bai, ordea, *Txulai* zarautzarra eta bere emazte Janinekin.

Zeelandaberritarren, hobe esanda kiwien (hego gabeko hegaztia edo frutaren omenez hala deritze) bizitza barruagotik ezagutzeko aukera eskaini ziguten inguratzea pentsatzen genuela esan genienetik. Mangere auzoan bizi dira, hiriko 46 sumendi itzali-tako baten ondoan, egun haietan Kemen eta Luken semeekin.

Tongarrek, kiwiek eta euskaldunek osatutako talde batekin futboleko auzo txapelketa batean parte hartzeko aukera izan genuen, sumendiaren inguruan txango bat, auzokideekin beira, egur zein margo eginiko eskulanetan jardun... Egia esan, etxean bezala sentitu ginen hango aireportuan agurtu eta Sydneyra abiatu ginen bitartean.

Haurrekin ere gozatzeko aukera izan genuen. Zein bitxi eta ederra egiten zen, munduaren beste puntan jaiotako bi ume ilehori euskaraz mintzatzen entzutea! Baina guztia ez da hor amaitzen. Gu han ginenean Janin haurdun zen (erditzeko zorian zehazkiago) eta hona iritsi eta aste pare batera jaso genituen Lennaren bizitzako lehenengo argazkiak!

Dirudienez, bada kiwien habietan jaiotako euskaldunik antipodatan ere... ■

**Rosi** Garbiketak

Etxeak eta dendak  
Enpresa eta auzo lanak  
Arropa garbiketa eta tindaketa

Basadi, 3-A tel. 943 016 353

**talaja**  
taberna • jatetxea

Santiago auzoa, 4 Tel. 943 143 370

**TALAI-PE**  
jatetxea-erretegia

Arrainak, mariskoak eta txuletak parrillan  
Julio Beobide ibiltokia Tel. 943861392

**Tapaia**  
Taberna

Erribera kalea  
20750 ZUMAIA (Gipuzkoa)  
tel. 943 861 973

**Txingurri**  
loradenda

Loradenda Lorazaintza  
erribera, 1 tel. 943 860 778  
tel. 943 861 180 655 703 343

Nekazaritza Injineru Teknikoak

**Urola 2000, s.l.**  
Aroztegia

\*Erakuntzen akabera eta dekorazioak  
\*Baserrien zaharberritzea  
\*Enbarkazio konponketa  
\*Ate, zokalo, tarima eta pertsiak  
\*Armairu enpatatuen aurrealdea  
\*Aroztegi metalikoak

Trenbide pasealekua, 1 tel. 943 143 505 - 619 424 323

**UDABE**  
jatetxea

Eguneko menua  
Plater konbinatuak  
Kaxuelitak

Estazio-loka kalea, 20 Tel. 943577692

**Xanti**  
Xanti Osa  
Arantxa Azkue

Amalako plaza, 13  
tel. 943 860 914  
657 794 153  
Denda: tel./faxa 943 862 385

**xirula**

Argazki eta bideo erreportaiak  
Errebelatzeak  
Kamarak  
Musika

Erribera kalea z/g tel. 943 861 705

**Zalla**

• plater konbinatuak  
• ogitarteak  
• oilasko erreak

Uph Plaza 3 • 943 86 23 87 ZUMAIA

**zapateixa**  
konponketak

Oinetako eta  
erropa  
konponketak

Produktu eta  
material  
ekologikoa

Zunbilo kalea 8 • 20750 Zumai • 943 861 252 • 652 727 740

**Zumaia Hotela**  
Jatetxea  
Kafetegia

Alai auzategia, 20750 Zumai tel. 943 143 441 faxa 943 865 161

**Zerbitzu Ofiziala**

**ZUMAIA MOTOR**

Santiago auzoa, 22  
tel. 943 143 143 faxa: 943 865 161

**ZUMAI**  
AUTO-ESKOLA

• Gidabaimen guztiak ateratzeko baimendua  
• Praktika eta azterketak Azpeitian  
• GURE HELBURUA:  
Gidari trebe eta profesionalak egitea

Basadi, 12 - beheka • tel. 943 86 10 18 • ZUMAIA

**Zumaia optika**

Txomin Agirre kaia, 6 tel./faxa: 943 143 057

Ikastegi homologatua

**Golden Gate**  
Institute  
hizkuntz eskola

Erribera kalea 1 bis, beheka  
tel./faxa 943 865 020  
goldengateinsti@telefonica.net

**TXALAPARTA**  
OPARIK

Angelo Soraza, 2  
20750 ZUMAIA  
(Gipuzkoa)  
tel. 943 143 089  
faxa. 943 430 637





# Gernika parkeko eskultura

Iñaki Olazabalen eskultura bat jartzearen aldeko mozioa onartu zuen Udal Plenoak 2009ko azken batzarrean. Eskulturaren aukeraketa lehiaketa publiko bidez egitea hobesten du Udal Gobernuak, baina alkateak jakinarazi duenez Udal Plenoaren erabakia errespetatuko du. Goiko irudian ikus dezakezue eskultura multzoaren argazki-muntaia.

## INKESTA

**Herrian zehar aparkatuta dauden karabanak eta autokarabanak arazo bat direla uste al duzu?**

JASOTAKO BOTOAK: 317

|     |                      |               |
|-----|----------------------|---------------|
| 8   | Berdin zait (% 2,52) |               |
| Ez  |                      | 153 (% 48,26) |
| Bai |                      | 156 (% 49,21) |



## Leizatarrak ETB1en

Perretxikoen inguruko Udazken Loreak telebista saioan agertu ziren Leizatarrak. Webgunean ikus dezakezue bideoa.



# URTARRILA eta OTSAILA

## URTARRILA

Osteguna, 14  
22:15ean Aita Marin Zine  
foruma: "Si la cosa funciona"  
Larunbata, 16  
20:00 eta 22:30ean antzerkia,  
TXALOren "LAS  
VACACIONES DE JOSEFA"  
Larunbata, 23  
19:00etan  
CIUDAD DE EIBAR ganbara orkestra  
Osteguna, 28  
22:15ean Aita Marin Zine Forum  
"La cuestión humana"  
Ostirala, 29  
19:00etan, Erkibe kultur  
taldeak antolatuta, hitzaldia  
Alkoholismoaren inguruan,  
Patxi Ezkurraren esku.  
22:00etan Aita Marin,  
antzerkia "ARRASTOA"

## OTSAILA

Otsailaren 12an hasita: INAUTERIAK.  
Ostirala: Musika eskolarekin  
"PIRATAK" Ikuskizuna  
Gauetan: Zumaiaiko Musika  
Banda eta San Pedro  
abesbatzarekin, Inauteri festa.  
Larunbat arratsalde-iluntzean:  
- Eta haurrentzat eta Helduentzat  
Mozorro lehiaketa  
Otsailak 15, astelehena  
Pirritx eta Porrotxen  
Inauteritako saioa  
Otsailak 26, 22:00etan Aita  
Marin, antzerkia  
TIZZINA TEATROren  
"Exitus" antzezlan

## INAUTERITAKO KARTEL LEHIAKETA

### Oinarriak:

- Gaia eta kartel testua:  
"Zumaiaiko Inauteriak 2010"
- Zumaiairei dago zuzendua;  
bakoitzak gehienez 3  
lan aurkez ditzake
- Teknika / neurria: marrazkia  
(era digitalean aurkeztuak ere



ontzat ematen dira). DinA  
3 neurria (297x420mm)  
- Egilearen izena eta datuak kartazal  
itxi batean ekarriko dira  
- Aurkezteko epea eta lekua:  
Foronda kultur etxean,  
urtarrilaren 22a baino lehen.  
- Epaimahaia Festa Batzordeak  
osatuko du, eta saria 380 eurokoa

da. Kartela irabazlea Udalaren esku  
geratuko da eta Inauteritako festa  
egitaraua kaleratzeko erabiliko da.  
- Aurkeztutako kartelekin  
erakusketa bat egiteko aukera  
ikusiko da Forondan, eta irabazi  
ez duten kartelak erakusketa  
itxi eta hurrengo 15 egunen  
barnean jasoko dira.

## 2010 URTARRILAK 28 OSTEGUNA, 22:15ean

Izenburua: **La cuestión humana** (2007) 140 minutu  
Zuzendaria: **Nicolas Klotz**  
Aktoreak: **Mathieu Amalric, Edith Scob, Michael Lonsdale, Lou Castel.**  
Gidoia: **Elisabeth Perceval**  
Argazkia: **Josée Deshaies**  
Musika: **Syd Matters**

Alemaniko petrokimika bateko enpresako giza baliabideetako psikologo baten borrokak eta arazoen bidez Nikolas Klotz zuzendariak eta Elisabeth Perceval gidolariak kontu bat frogatzen dute: Naziak erabiltzen zuten hizkuntza (holokaustoari "azken irtenbidea" deitzea, adibidez) eta gaur egungo monopolio eta korporazio handiek erabiltzen dutena ber-bera dela. Baina hau ez da filmaren meritu bakarra, psikologo honen lana agertzearekin batera Klotzek memoria historikoaren garrantzia azpimarratuko du eta hatzarekin seinaltatzen digu gaur egungo gizartean totalitarismoa logika kapitalistez mozorrotuta sartu



dela, eta ezer gutxi egin dela hori ekiditeko. Filmean ikaragarriak dira, bereziki, psikologoa eta multinazionalen zuzendaria elkarren kontra jartzen diren eszenak. Ez da pelikula erraza, kontzientzia hartzea eskatzen duelako, baina filmaren argitasun apartak pelikula ikustea oso gomendagarria bihurtzen du, batez ere ahal denik eta mundu ederren eta askatuenean bizi garela uste dutenentzat. Aktore frantziarraren bere azken urteetako ibilbidea frogatuz bezala (filma oso onetan soilik egiten du lan) Mathieu Amalric-en (psikologoa) lana ikaragarri ona da. Europako aktore onenetakoa baten aurrean gaude.



Ingelesa, Gorputz Hezkuntza, Musika, Haur Hezkuntza eta  
Heziketa Bereziko irakaslego espezializatua.

Internet gela guztietan

Jangela zerbitzua

Ingelesa 3 urtetik aurrera

Teknologi berriak: Eskola 2.0

Bloga: <http://laukostaldekotxikiak.blogspot.com>

Talde Txikiak

Psikomotrizitate gela

**2 urtetik  
12 urtera**

# Arroako herri eskola

## OSO LASAI ETA EUSKARAZ BLAI

### Matrikula zaitez!

otsailaren 1etik 12ra



Tel./Fax-a 943 14 70 44  
E-mail: [012038aa@hezkuntza.net](mailto:012038aa@hezkuntza.net)




# STOCK-OUTLET AZOKA

Otsailaren 27an eta 28an, Kantauri plazan. ZUMAIA

[zumaiaelkartea@gmail.com](mailto:zumaiaelkartea@gmail.com)







ZUMAIKO HERRI ESKOLA

**ZUMAIKO  
INSTITUTUA**



**KALITATEA  
HEZKUNTZAN**

# MATRIKULA IREKIA

## otsailaren 1tik 12ra

- ✓ **Haur Hezkuntza**
- ✓ **Lehen Hezkuntza**

### **ZUMAIKO HERRI ESKOLA**

Aita Mari, 44,  
tel. 943 861 037; faxa: 943 862 501  
posta elektronikoa: 012972aa@hezkuntza.net  
Sagarbidea, 1  
tel. 943 861 693

### **INSTALAZIOAK:**

- Psikomotrizitate gela
- 2 Liburutegi
- 2 Laborategi
- Irratia
- 5 Informatika Gela
- 2 Teknologia tailerra
- Gimnasioa / Frontoia
- Elbarrituentzat egokitua

### **ZERBITZUAK- EKINTZAK:**

- Jantokia
- Garraioa
- HOBETUZ ikastaroak
- Leonardo / Erasmus

### **ESKOLAZ KANPOKO EKINTZAK:**

- Kirola
- Mekanografia
- Aldizkaria
- PROA (Errefortzu programa arratsalde)

- ✓ **Derrigorrezko  
Bigarren Hezkuntza**

- ✓ **Z.I.G. / A.A.T.**  
(Zereginen Ikaskuntzen gela)

- ✓ **Batxilergoak**
  - Giza eta Gizarte zientziak
  - Zientzia eta Teknologia

- ✓ **Heziketa Zikloak**
  - Administrarritza eta Finantzak  
(Goi Mailakoa)

### **ZUMAIKO INSTITUTUA**

Aita Mari auzoa, 45  
Sagarbidea, 1  
tel. 943 860 809 / 943 862 320  
faxes: 943 860 810  
posta elektronikoa: zuminst@euskalnet.net  
web orria: www.zumaiahe.com

